

17 urte, atzo eta bihar

Ez dago eztabaidarik, ezta gai posiblerik ere. Pandemiak dena irentsi du: pentsaera, sentimenduak, iragana, etorkizuna... Dena baldintzatu du, globalizatu gara. Berdindu, leundu, xinxikatu. Orainaldiaren onurak ere hor ditugu, noski. Orain bizi dugun onapurra preziatzera kondenatuak gara eta elkarrekin hartutako garagardeen zaporeak asko irabazi du. Gure hurbilekoen balioaz jabetu eta senidea gehiagotan deitzen saiatzen gara, hurbiltzen gara, igande pasa. Bakoitzak ukan du hausnarketarako tartea, eta funtsezko galderak pausatzeko espazioa. Baina komunitate gisa, iragana eta etorkizuna



LAUHAZKA
Ximun Fuchs

izurritearen paretaren kontra lehertu zaigu. Izoztu gara, barnetik zein kanpotik. Kanpotik diot, zeren elkartzeko aukera fisiko oso mugatuak gelditzen zaizkigu, kontsumorako ez bada. Eta barnetik, zeren gure gogoetak esfera pribatura mugatu zaizkigu: haurrak, gurasoak, bikotea, ni, etxea, balkoia, oporrak, lana... Baina gu? Herria, hiria, generoa, lan taldea, klase soziala, euskara... Hauek guztiak osatzen dute gu hori, eta herri bezala ez dugu guzti horretarako mugari berririk. Iceberg batean ibiltzearen sentazio gazi-gozoa dugu, negutegi efektuak gure ilusio guztiak urtu arte. Negu latzaren esperoan biziraun behar ote dugu? Hau lehen negua ez dela erran nezake, eta gure arbasoek utzitako aztarnak baluketela zer kontu, zer eskaini.

Aitatzik Figueiridoko kontzentrazio esparruan atera zuen argazki hau, zangoen azpian hamarnaka gorputz lurperatuak zeudela oroitzeko. Erai-lak, torturatuak... Eta argazki hau gelditzen da historia kontatzeko. Segundo baten berrogeita hamarra. Frankistek euskaraz mintzatzeagatik susmagarritzat jo eta nazien aurka borrokatzea zihoala deduzitu ondoren kartzelan sartu zuten. Irudian, kartzelatutako bi gizon, harro eta duin. Handik atera, eta gerrara: Ipar Afrikan, Ingalate-

rran, Frantzian eta Alemanian ere izan zen aitatxi, nazien aurka borrokatzen. Bizirik irauten dut argazkian ageri diren bi lagun horien esperantzaren, duintasunaren eta maitasunaren ondareari esker. Kide, lagun, anai. Euskal memoriaren aztarna bat. Hainbat istorio. Zenbat herri dugu oraindik ahoz aho kontatzeko?

Aitatxi 17 urterekin sasian sartu zen. Nire seme gehienak 17 urte egin ditu; beraz, komunikabideek jomugan hartutako belaunaldikoa da, berriz ere. Errua eta bel-

durra. *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentalean agertzen diren gazte guzti hauek bezala: kondena, Damoklesen ezpata eta izua. Urteekin on-tzen garena erraiten omen da, baina or-

duan, zertarako ez dugu aurrekoen esperientziatik ikasten? Zertarako behin eta berriz onartzen dugu onartezina? Artistok bagenuke zer erran gure funtsezko rola bete nahi bagenu.

Artean lan egiteak erantzukizun bat dakar. Ez da ofizio soil bat, pretentsio asko behar da ehunka lagun areto batean bildu eta erraiteko: «Egon hor, badut zerbait kontatzeko». Horrek ardua bat ematen digu, eta betebeharrak. Eta gaur egun inoiz baino gehiago. Zeren egia eta gezurra berdin dira. Kargudun politikoak militarren alboan mintzatu dira medikuak behar genituenean, zientzialariak dena eta aurkako erraiten entzun ditugu, polizia elbarritu bat jotzen ikusi dugu laguntza behar zuenean... Iruzurra agerian egon da: errege gaiztatu bat herri baten aberastasu-

Orain artearen momentua dela pentsa daiteke. Artearen elea metaforaren, sinboloaren, ulergaitzaren eta ebidentziaren artean kokatzen da



Jean Castagnet eta Andre Lekuona.

FAMILIAKO ARGAZKIA

nekin erresuma petro-usteldu batean aterpetua, Frantziako lehen-dakaria separatismoaren arazoa saltzen erronka pobrezia eta osasunean kokatzen denean... Dena eta aurkako erran daiteke, eta ezerk ez du balio. Inork ez du inor sinisten, eta denek hitzaren zilegitasuna galdu dute.

Orain artearen momentua dela pentsa daiteke. Artearen elea metaforaren, sinboloaren, ulergaitzaren eta ebidentziaren artean kokatzen da. Zauriak identifikatu, malkoak xurgatu, korapilatsua argiztatu, eta komunitatea elikatu. Maitasunez eta zintzotasunez. Hizkuntzari bere egiazko balioa emateko aukera eta betebeharrak dugula uste dut. Aukeramen askea eta ardura berreskuratutako nahi baditugu behintzat. Orain inoiz baino gehiago, gazteekin zorretan gaude. Hitzaren balioa bere lekuan ezartzea zor diegu, zeren eskaintzen diegun mundua ez da oso ederra. Izan gaitzen zintzoak gure artearekin, hitzarekin, errespetaarekin ekin dezagun. Gure komunitateak merezi du, eta bere bizi-iraupenaren giltzak 17 urte ditu. Atzo, orain eta bihar.

EMANALDIAK

AZAROA

- || 10 SENPERE
- || 13 LEIOA
- || 14 HAZPARNE
- || 21 ATARRABIA
- || 27 ERMUA

ABENDUA

- || 1 IRUN
- || 2 EIBAR
- || 4 DONOSTIA
- || 5 ZIZUR NAGUSIA
- || 11 TOLOSA
- || 13 OION
- || 19 ASTIGARRAGA
- || 27 LEITZA

ZALDI URDINA

IGOR ELORTZA eta UNAI ITURRIAGAREN idazlanak
Zuzendatzaile: XIMUN FUCHS eta AINARA GURRUTXAGA
Aitatzak: ANDER LIPUS - OLATZ BEOBIDE - URKO R. PESCADOR
MIREN ALCALA - MANEX FUCHS - EDURNE AZKARATE - OIER ZUNIGA
AZUKI • ARTEPRAMA • BEJABU
www.zalditurdina.eus
berria